



Euskal Herria Anitzarentzat

**ADOSTASUNAK**

**CONSENSOS** PARA LA EUSKAL HERRIA DIVERSA.

**Euskara & hizkuntz aniztasuna**

**Euskera & diversidad lingüística**

## Euskara & hizkuntz aniztasuna

Euskara, euskaldunon hizkuntza, historian zehar partekaturiko nortasun zeinu garrantzitsua da, kultur kohesiorako bidea, aniztasunean batzen gaituena. Azken finean, herri egiten gaituena.

Dena dela, Euskal Herriko berezko hizkuntza izan arren, mendeetan iraun duen asimilazio eta ordezkatze prozesuaren ondorioz, egun etorkizuna bermaturik ez duen hizkuntza da euskara, bere lurraldean bizirik irauteko aukerak auzitan dituena.

Egun, Euskal Herrian, euskararen herrian, herritar guztiak ez dira euskaldunak, herritar guztiak ez dute euskara ezagutzen. Euskarak ez ditu funtzio komunikatibo guztiak betetzen eta bere erabilera mugatua da hainbat gizarte alor zein ingurune geografikotan. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian gaztelania da funtzio komunikatibo guztiak bermatuak dituen hizkuntza eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan aldiz frantsesa.

## Euskera & diversidad lingüística

El euskera, el idioma de los vascos, es un signo de identidad compartido a lo largo de la historia por los habitantes de Euskal Herria, la gran aportación de nuestro pueblo al patrimonio de diversidad cultural de la Humanidad, elemento de cohesión que nos une en la diversidad y nos define como pueblo.

El euskera aún siendo el idioma propio de nuestro país, debido al proceso de asimilación y sustitución que se ha dado durante siglos, es hoy todavía un idioma que no tiene asegurado su futuro y cuyas oportunidades para la supervivencia se encuentran todavía hoy en cuestión.

Hoy en día en Euskal Herria, en el país del euskera, no todos sus habitantes conocen el euskera. El euskera no cumple todas las funciones comunicativas y su uso es limitado en algunos espacios de la sociedad o ámbitos geográficos. En Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra es el castellano la lengua que tiene garantizadas todas las

Egoera hori irauli eta euskara berreskuratzea helburu duen prozesua abian da. Egoera diglosiko hori gainditzea eta Euskal Herriko herritar guztaientzat beren eguneroko eta mota guztieta jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izatea helburu duen normalizazio prozesua garatzen ari gara.

Norbanako eleanitez osatutako Euskal Herri euskalduna eraiki nahi dugu eta horretarako hizkuntza aniztasunaren kudeaketa gure hizkuntzaren normalizazio prozesuari ekarpena egiteko bidean jartzea ezinbestekoa da.

Egun euskal herritarrek jakin eta mintzatzen dituzten hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, txinera, wolofera, urduera, arabiera, amazighera...) Euskal herritarren aberastasun dira eta ondorioz euskal herritarren eleaniztasun hori Euskal Herriarentzat ere aberastasuna da. Baino hizkuntza jakin bat berezkoa, bertakoa den hizkuntza ordezkatzen edota alboratzeko erabiltzen denean ezin da aberastasunaz edota aniztasunaz hitz egin, kontrakoaz hitz egin behar da, ordezkapenaz, asimilazioaz, homogeneizazioaz. Hortaz, gaur egun eta hemen, Euskal Herrian, aniztasunaren alde egitea, bertakoa eta berezkoa den euskararen alde egitea da, euskararen hiztun komunitatearen alde egitea, euskal herritar guztiak euskaldun izatea.

Euskal Herrian mintzatzen diren hizkuntza horiek guztiekin beren hiztun komunitate eta espazioak dituzte eta beren biziraupena bermatua dute. Euskarak ere berea behar du. Hori da aniztasuna.

funciones comunicativas y en Lapurdi, Nafarroa Behera y Zuberoa la lengua francesa.

El proceso para invertir esa situación en la recuperación del euskera está en marcha. Estamos desarrollando un proceso de normalización que convierta al euskera en el idioma principal y habitual en el día a día de los ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria que hará superar la situación de diglosia actual.

Queremos construir una Euskal Herria que se componga de personas euskaldunes plurilingües, y para ello la gestión de la diversidad lingüística debe ir encaminada a la normalización del euskara.

Hoy día, los ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria, hablan castellano, francés, chino, wolof, urdu, árabe, amaizigh... Es una riqueza de los habitantes que lo hablan y por tanto una riqueza para Euskal Herria. Pero cuando algún idioma es utilizado para sustituir o apartar a la lengua del propio lugar, del propio país, no puede hablarse de riqueza ni de diversidad sino de todo lo contrario, de homogenización y asimilación. Por lo tanto, hoy en día trabajar por la diversidad en Euskal Herria es trabajar por la pervivencia y la normalización del euskara, y porque todo ciudadano y ciudadana de Euskal Herria llegue a ser euskaldun.

Todos los idiomas que se hablan en Euskal Herria tienen su comunidad de hablantes y espacios donde tiene garantizada su supervivencia. Trabajar por la diversidad es hacer que el euskara tenga el suyo.

Zentzu horretan, ezinbestekoa da euskararen normalizazio prozesua azkartu eta euskal herritar guztiak euskara jakitea. Norbanako eleanitzez osatutako Euskal Herri euskaldunean, norbanakoek nahi beste hizkuntza jakingo dituzte baina euskara izango da guztioen hizkuntza komuna.

Euskara izango da komunikaziorako zein integrazio sozialerako tresna. Izan ere, hizkuntza da komunitatea egiteko bide eraginkorrena. Norberaren jatorrizko edo berezko kultura komunitateari uko egin beharrik gabe, hemen, Euskal Herrian, euskara izango da euskal komunitatearen ardatza. Euskal Herrian euskararen ezagutza eta erabilera da euskal komunitatean integratzeko bidea. Euskara da elkarbizitzarako tresna.

Elkarbizitza eta integraziorako tresna nagusia den heinean, ezinbestekoa da herritar orori euskara ikasteko eskubidea bermatzea eta horretarako neurri zein bitarteko guztiak egikaritzea. Izan hezkuntza arautuaren bidez zein euskaltegi sarearen bidez, herritar orori euskara doan ikasteko eskubidea bermatu behar zaio.

### **Honela bada:**

- Euskararen herrira etorritako pertsonen beren seme-alabei identitate anitztuna garatzeko aukera eskaini behar zaie, beren jatorria eta kultura aintzat hartuz, balioetsiz eta landuz. Eskolak, etorkizuneko herritarra betebeharra duen neurrian, bizikidetza eta inklusiorako tresna ere izan behar du.

En ese sentido, es imprescindible acelerar el proceso de normalización lingüística del euskera y que todos los ciudadanos de Euskal Herria lleguen a saber comunicarse en euskera. En la Euskal Herria diversa compuesta por personas euskaldunes plurilingües, sus ciudadanos sabrán tantas lenguas como quieran y será el euskera el idioma común que nos une.

El euskara será instrumento de comunicación e integración social. No en vano la lengua es el elemento de integración más efectivo en una comunidad. Sin renunciar a la cultura propia de la comunidad de origen, el aprendizaje y uso del euskara será la herramienta más eficaz en el camino de integración y convivencia en Euskal Herria.

Siendo el euskera la principal herramienta para la convivencia y la integración, es fundamental garantizar el derecho al aprendizaje del idioma a cualquier persona. Sea a través de la educación reglada o bien a través de la red de euskaltegis, a todo ciudadano y ciudadana de Euskal Herria se le debe garantizar el derecho a estudiar de manera gratuita el euskara.

### **Así pues:**

- A toda persona llegada a Euskal Herria y a sus descendientes, se les debe de garantizar la oportunidad de desarrollar una identidad múltiple, que ponga en valor su cultura, lengua y origen. Las escuelas tienen el deber de educar a los futuros ciudadanos y ciudadanas en la convivencia en la diversidad y en la inclusión.

- Hezkuntza arautuak hizkuntzen eremuan ikasle euskaldun ele-nitzak bermatu behar ditu. Derrigorrezko irakaskuntza amaitzean euskal ikasleek euskara eta beste hainbat hizkuntza jakingo dituz-tela bermatu behar du hezkuntza sistemak baina egungo irakas-tereduek ez dute horrelakorik bermatzen eta hori euskararen nor-malizazio prozesurako ez ezik, elkarbizitzarako zein integracionrako arazo bilakatzen da.
- Eskolak ikasle guztien aukera berdintasuna bultzatu behar duen heinean, euskara eta beste hainbat hizkuntzen ezagutza bermatu behar du, ikasle guztiak hezkuntza-ibilbidea amaitzean jendartean zein lan-merkatuan integratzeko aukera berak izan ditzaten.
- Era berean, helduek ere euskara ikasteko aukera izan behar dute eta horretarako ezinbestekoa da euskara ikasi nahi duten heldu guztiei eskubide hori bermatzea. Hala nahi duen heldu orok dago-kion euskaltegian Euskara ikasteko aukera izan behar du eta diruak, distantziak edota ordutegiak ezin dute oztopo izan.
- Laburbilduz, gaur egun eta hemen, Euskal Herrian, aniztasunaren alde egitea, bertakoa eta berezkoa den euskararen alde egitea da, euskararen hiztun komunitatearen alde egitea, euskal herritar guz-tiak euskaldun eleanitzak.
- La educación reglada debe garantizar en el ámbito de los idio-mas alumnos euskaldunes plurilingües. El sistema educativo debe garantizar que los estudiantes al finalizar la enseñanza obligatoria conozcan el euskara y otros idiomas. Los actuales modelos edu-cativos, sin embargo, no están logrando este objetivo y esto se está convirtiendo en un problema tanto para la normalización lin-güística del euskera como para la integración y la convivencia.
- La escuela debe promover la igualdad de oportunidades para sus alumnos y alumnas. El desconocimiento del euskara en Euskal Herria puede llegar a ser, en la medida que resta oportunidades sociales, culturales y laborales, un factor de segregación que tene-mos la obligación de evitar. La escuela debe garantizar el conoci-miento del euskera, y otros idiomas, para que todo el alumnado acceda a la sociedad y al mercado laboral con las mismas oportu-nidades de integración y desarrollo vital.
- Las personas adultas también deben de tener la oportunidad de aprender euskera y para ello es imprescindible garantizar a todos ellos ese derecho. Toda persona adulta que quiera, debe tener oportunidad de aprender euskera en el euskaltegi que le corres-pponde sin que la situación económica, la distancia u horario sea un impedimento para ello.
- Resumiendo de una manera breve, trabajar por la diversidad en Euskal Herria, es trabajar por la normalización del euskara, por la comunidad lingüística del euskera, trabajar para que todos los ciu-dadanos en Euskal Herria lleguemos a ser euskaldunes plurilin-gües.